

Getxoko Andrés Isasi Musika Eskola: Musika Eskolako ikasleei 2017-2018 ikasturteko ikasteko kuotetan diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duten oinarriak

Getxoko Musika Eskolako 2017ko azaroaren 14ko 119/2017 Presidente Ebazpenaren Laburpena: Musika Eskolako ikasleei 2017-2018 ikasturteko ikasteko kuotetan diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duten oinarriak

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat etorrita, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi izanez gero, Diru Laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

Lehena.- Xedea

Oinarri hauen xedea Getxon erroldatuta dauden eta egoera ekonomiko behartsuan dauden Musika Eskolako ikasleentzako laguntzak arautzea da. Horrela, mota honetako familiek musika ikasteko aukera dutela bermatu nahi dugu, musika ikastea herritarren bizi-kalitatea eta pertsona gisa duten garapen integrala hobetzen laguntzen duen elementua delakoan.

Bigarrena.- Onuradunak

Diru-laguntza hau jaso dezakete betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak:

- 1.- Getxoko udalerrian erroldatuta egotea.
- 2.- Musika Eskolan erroldatuta egotea, edota Musika Eskolan eskolatutako eta Getxon erroldatutako seme-alabak edukitzea.
- 3.- Oinarrietan aurkitzen diren baldintza ekonomikoak betetzea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak Getxoko Musika Eskolako 2017ko azaroaren 14ko 119/2017 Presidente Ebazpenaren bidez onetsi ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira deialdiaren argitalpenaren egun berean.

Laugarrena.—Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 57.000 eurokoa da.

Bosgarrena.—Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hilabete bat baliodunekoa izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Seigarrena:-

Deiladiaren oinarrien testu osoa hurrengo helbidean aurkitzen da:

<http://www.getxo.eus/DocsPublic/musika/castellano/documentos/becasmusika2017.pdf>

Getxon, 2017ko azaroaren 23an.— Koldo Iturbe Mendilibar, Presidente de la Escuela de Música “Andrés Isasi”